



MUSIKA

Zenbat duten oraindik barruan!



Bilboko Errekalde auzoko laukotea.

IKER BARANDIARAN

Bilboko Zea Mays taldea bizia eta iraunkorra da, pausoak –txikiak zein handiak– etengabe emanek bere bide propioa eraiki duena harrokeriarik gabeko harrotasunez. Igaro du desertu luzea, ezagutu ditu distira eta ospea, baina ezerk ez du aldarazi, betikoak dira.

Orain dela gutxi aipatu nuen, niretzat Errekaldeko laukotea dela, marketing trikimailuetatik harago, bere ibilbidean jarraitzaileak batu dituen talde baten adibidea: askotan jo, zuzenekoetan dena eman eta hasierako ilusioari eutsita betiere. Badira gehiago, noski, baina hauena oso adibide argia da.

Aspaldi ez nuela beraietaz idazten eta banuen gogo. Aitortu behar dut, daukagun musika eskaintza erraldoiak

despistatuta, urteetan ez diedala taldearen diskoei behar duten arreta jarri, baina tarteka taldea zuzenean ikusi dudanean zur eta lur utzi naute; are gehiago azken urteotan. Munstroak dira agertoki gainean eta egiten dutena erabat disfrutatzen dute, ez dago inongo zalantzarik.

Bada, *Atera* etorri ez bada ere, bere bila jo dut jakin-minez azkeneko lanak zer dakarren ikustera: *Gaur ni naiz* tempo erdiko leloak dituen rock indartsua da, euskal folk introa duena. *Ilara hilobi* Hawkind eta Monster Magnet ahaide dituen rock pisutsua, garatu ahala ia kiribildu egiten dena. *Kea* electro-rock, pop eta new wave puska, hit!a agian. *Hiri eri*-n Cicatrizen trazako introari pop-rock gihartsua eta itsaskorra gai-



ATERA MUGALDEKOAK BAND

GARDEN RECORDS, 2019

lentzen zaio nagusitasunez. *Atera* pop-a da letra larriekin: gardena, goxoa, malenkonía puntuarekin... *Haizearen jainko beltza*-k elektronika, makinatxoak eta post-rocka erritmo dantzagarrien zerbitzura jartzen ditu. *Bidegurutzean* XXI. mendeko rock indartsua eta ukitu epikoaren arteko ezkontza. *Zintzilik* elektronika dantzagarria eta melodia purian distortsionatu eta zikintzeko ariketa gogotsua. *Edonora* da diskoko pieza azkarrena, doinu soil baina aldi berean sarkorra duena. *Inurriak* minimalista eta geldoagoa, sintetizadoreen laguntzarekin, post-rock eta new wave artean esperoan dagoena. Eta, azkenik, taldea elektronika eta noisea ezkontzen “andereñoa” dela erakusten duen *Ur-jauzia*. ●